



ESLEIPEN-IRAGARKIA

2022ko urtarrilaren 26ko eta otsailaren 16ko osoko bilkuretan egindako akordioen arabera, hona hemen **ALEGRÍA-DULANTZIKO MENDEBALDEA URBANIZATZEKO** lanen kontratua prozedura ireki bidez esleitzeko deialdia, datu hauen arabera:

1.- Erakunde esleitzaila: datu orokorrak eta informazioa eskuratzeko datuak:

- a) Erakundea: **Alegria-Dulantziko Udala.**
- b) Dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko:
 - 1.- Tokia: **Alegria-Dulantziko udaletxea.**
 - 2.- Helbidea: **Herriko plaza 1.**
 - 3.- Udalerria eta posta-kodea: **01240 - Alegria-Dulantzi.**
 - 4.- Telefono-zenbakia: **945-420027.**
 - 5.- Telefax-zenbakia: **945-420394.**
 - 6.- Helbide elektronikoa: aalegria.general@ayto.araba.eus
 - 7.- Kontratugilearen profilaren Interneteko helbidea: www.contratacion.euskadi.eus eta www.alegria-dulantzi.eus
 - 8.- Dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko epemuga: **eskaintzak aurkezteko epea bukatu baino 3 egun lehenago.**
- c) Espediente-zenbakia: **1216/2021.**

2.- Kontratuaren xedea:

- a) Mota: **lanak.**
- b) Xedearen deskribapena: **Alegria-Dulantziko Mendebalde urbanizatzea.**
- c) Gauzatzeko epea: **11 hilabete.**
- e) Luzapen-onarpena: **ez.**
- f) CPV (nomenklatura-erreferentzia): **45310000-3, 45232310-8, 44160000-9, 45233222-1.**

3.- Izapidetza eta prozedura:

- a) Izapidetza: **arrunta.**
- b) Prozedura: **irekia.**
- c) **Esleipen-irizpideak: proposamenak balioesteko eta eskaintza ekonomiko onuragarriena zehazteko, hainbat esleipen-irizpide hartuko da kontuan, kalitate-prezio erlazioa kontuan hartuta.**

A. Automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideak, beheranzko hurrenkeran puntuatuko dira.

- a) Eskaintako preziorik txikiena: 50 puntu.

Puntuazio gorena eskaintza ekonomikorik onuragarrieneri emango zaio, eta gainerako puntuazioa honako formula honen arabera kalkulatu da:

$$VO = (Imo / Iop) \times P$$

Oharra:

VO = eskaintzaren balioespena

Imo = eskaintako zenbateko txikiena

Iop = aurkezturiko eskaintzaren zenbatekoa

P = emandako puntuazio gorena

- b) Berme-eparen luzapena: 10 puntu.

Gutxieneko berme-epa URTEBETE luzatzen duen eskaintzak puntuazio gorena lortuko du, eta gainerako eskaintzak, baldin eta aipatu epea hobetzen badute, zuzeneko proportzionaltasunaren bidez puntuatuko dira. Berme-eparen urtebeteko luzapenik eskaini ezean, lorturiko puntuazioa 0 izango da. Berme-epa luzatzeko gehieneko epea BOST (5) urtekoa izango da, eta hortik gora ez du puntuazioan eraginik izango. Hala, lanen berme-epa bost urtez baino gehiago luzatzen duen eskaintza orok 10 puntu lortuko ditu atal honetan.



"P" lorturiko puntuazioa izanik

$P = \dots\dots\dots 10 \times$ eskainitako berme-epe puntuagarria.....
Puntuazio gorena lortu duen berme-epea

c) Gauzatze epea laburtzea, S) atalean ezarritakoaren arabera: 2 puntu, gehienez.

Gehienez ere bi (2) astez laburtuko da gauzatze-epea, eta gehienez ere 2 puntu emango zaizkio epea bi astez laburtzea eskaintzen duenari. Kontratua gauzatze epea murrizten ez duenari 0 puntu emango zaizkio, proportzioan, hau da, puntu bat (1) epea murrizten duen aste bakoitzeko.

d) Ingurumen-irizpideak: 20 puntu

- 1) EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo egiazta daitekeen antzeko beste sistemaren bat duten enpresa lizitatzailerik 10 puntuko puntuazioa emango zaie.

Ingurumena kudeatzeko sistema hori gaur egun indarrean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu behar da.

Ingurumen-kudeaketako sistemak ezarrita EZ dituzten enpresa lizitatzailerik egiaztatu ahal izango dute sistema horiek (EMAS, ISO 14.001, Ekoscan edo baliokideak) ezarrita daudela obran erabili beharreko materialen (hodiak, kutxatilkak, hormigoia, asfalto-hormigoia...) enpresa hornitzaile eta fabrikatzaileetan, horietako bakoitzeko bi punturekin.

- 2) Makineria: 5 puntu, gehienez

Obra egiteko erabiltzen diren ibilgailuetan EURO 6 estandarrean edo maila handiagokoan ezarritako emisio-mailak betetzen diren baloratuko da (2,5 puntu).

Baldintza hori betetzen duten makina gehien dituen enpresa lizitatzailerik lortuko du puntuaziorik handiena. Gainerako enpresa lizitatzailerik baldintza hori betetzen duen makina-kopuruaren arabera puntuazio proportzionalak eskuratuko dituzte.

I Aingeru Urdina motako ekoetiketan edo baliokidean eraikuntzako makineriarako zehaztutako zarata-igorpenarekin lotutako ingurumen-irizpideak betetzen diren baloratuko da (2,5 puntu).

Baldintza hori betetzen duten makina gehien dituen enpresa lizitatzailerik lortuko du puntuaziorik handiena. Gainerako enpresa lizitatzailerik baldintza hori betetzen duen makina-kopuruaren arabera puntuazio proportzionalak eskuratuko dituzte.

- 3) Bertan erabilgarri dauden materialen berrerabilera: 5 puntu

Aintzat hartuko dira bertan erabilgarri dagoen materiala berrerabiltzeko lizitatzailerik proposamenak, proiektuan ezarritakoez gain. Proposamenok barne hartu ahal izango dute:

- Materialak bertan fabrikatzea, eskura dauden materialak berrerabiliz. Adibidez, goialdeko lurzoru-geruzetan material hezea edo eduki organikoduna berrerabiltzea, kalitateko konpostarekin batera; asfaltoa bertan edo zentralean birziklatzea; urbanizazio-obretan induskatutako hondakinak prozesatu eta zangak betetzeko edo hodian euskarri-oheak egiteko baliatzea, etab.

Proposamenean, zein material berrerabiliko diren, zein ehunekotan eta horretarako zein teknika baliatuko diren adierazi beharko da.



Proposamena baloratzeko orduan, kilogramotan berrerabilitako material gehien duen proposamenak lortuko du puntuaziorik handiena. Gainerako lizitatzailleek beren proposamenean berrerabilitako material-kopuruaren (kg) araberako puntu proportzionalak eskuratuko dituzte.

B.- Balio-iritzien bidez haztatzen diren irizpideak:

1) Proposamen Teknikoa edo Memoria: 18 puntu, gehienez.

Lanen programazioaren edukia, xehetasun-maila eta justifikazioa puntuatuko dira, koherentzia eta, beraz, betetzeko bermea aintzat hartuta.

Eskaintzak baztertu egingo dira, baldin eta memoriaren edo obraren programazioaren bidez kontratistak eskaintako prezioa susma badaiteke.

a).- Eraikuntza-prozesuaren deskribapena: 15 puntu, gehienez.

Proiektuaren ezagutza-maila balioetsiko da, eta, horretarako, obraren gauzatzeari eta egin beharreko jarduera nagusien deskribapenari buruzko azterketa oso zehatza egingo da, arazo zehatza eta obra-unitateak gauzatzeko zailtasunak aztertuko dira, baita horiek konpontzeko modua ere, eta eraikuntza-memoria bat etorriko da aurkeztutako obra-kronogramarekin, epeekin, baliabideekin eta proposatutako aurrekontu partzialekin. Era berean, eta eraikuntza-prozesuaren deskribapen honen nahitaezko osagarri gisa, auzotarrei zein kalte eragingo zaizkien aurreikusteko eta horiek ezabatu edo murrizteko ezarri beharreko neurriei buruzko analisia sartu behar da.

b).- Langileen eta makinaren zerrenda: 1,5 puntu, gehienez.

Obrak egiteko baliabide material eta giza baliabide egokiak izatearen justifikazioa balioetsiko da, baita eskaintzaileak lan-espazio bakoitzerako makineria egokia erabiltzeko duen konpromisoa ere.

c).- Obra propioa eta azpikontratatua: 1,5 puntu, gehienez.

Berezko lanen eta azpikontrataturako lanen programazioa eta gauzatze-aurreikuspena balioetsiko da, eta obraren gauzatzean duten eraginari buruzko azterlan oso zehatza egingo da, deskribatzailea zein ekonomikoa.

Barne hartuko du baliabide propioekin eta/edo azpikontrataturarekin gauzaturiko diren eraikuntza-sistemen zerrenda; eskaintako baliabideak azpikontratatzeko konpromisoa egiaztatuko da horretarako idatzitako dokumentuaren bidez, eta horiek aurreikusitako obrak gauzatzeko prozesura egokituko dira, bai eta azpikontrataturako jarduketan aurreikuspen ekonomikoen zehaztapena ere, dagokion banakapenaren bidez.

4.- Esleipen-aurrekontua:

Kontratuaren gehienezko prezioa: **1.913.333,24 euro**. BEZa, ehuneko 21: **401.779,98 euro**.

5.- Ezarri beharreko bermea:

Behin betikoa: % 5.

6.- Kontratistaren baldintza zehatzak:

Proposamenak pertsona naturalek nahiz juridikoek egin ahalko dituzte, espainiarrak zein atzerritarrak, lan egiteko gaitasun osoa dutenak, kontratatzeko debekurik ez dutenak eta euren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta fidagarritasun tekniko edo profesionala egiaztatzen dutenak.



Kontratuaren balio zenbatetsia kontuan hartuta, 1.913.333,24 euro, ezinbesteko baldintza izango da enpresaburuak sailkapen hau izatea:

TALDEA	AZPITALDEA	KATEGORIA
E	1	2
G	6	2

7.- Eskaintzen edo parte hartzeko eskabideen aurkezpena:

- a) Aurkezteko epemuga: **30 egun natural, iragarki hau kontratugilearen profilean argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera.**
- b) Euskarria: **papera.**
- c) Aurkezteko tokia:
 - 1.- Bulegoa: **erregistro orokorra.**
 - 2.- Helbidea: **Herriko plaza 1.**
 - 3.- Udalerria eta posta-kodea: **01240 - Alegria-Dulantzi.**
 - 4.- Helbide elektronikoa: aalegria.general@ayto.araba.eus
- d) Lizitatuzaileak eskaintza indarrean izan beharreko epea: **3 hilabete.**

8.- Eskaintza-irakiera:

- a) Deskribapena: **kontratazio-mahaia.**
- b) Helbidea: **Herriko plaza 1.**
- c) Udalerria eta posta-kodea: **01240 - Alegria-Dulantzi.**
- d) Eguna eta ordua: **proposamenak aurkezteko epea amaitu ondorengo bosgarren egun balioduna.**

Alegria-Dulantzin, 2022ko martxoaren 8an
ALKATEA

Izpta.: Joseba Koldo Garitagoitia Odria

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA